



EBAZPENA, 2005EKO AZAROAREN 7KOA, LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, EAE-KO ERDI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOETAN ZERBITZUAN DIHARDUTEN LAN-LEGEPEKO IRAKASLE FINKOAK ATXIKI EGITEN DITUENA LPZ-KO DAGOZKION LANPOSTUETARA ETA MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ESPEZIALITATE BERRIETARA

Joan den legegintzaldian zehar, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garrantzizko erregularizazio-prozesuari ekin zion, EAeko Erdi Mailako Musika-kontserbatorioetako plantillei eta ikastetxe horietan zerbitzuan diharduten irakasleei dagokienez.

Orain dagozkigun ondorioetarako, eta karrerako funtzionarioei dagokienez, prozesu horrek ondokoak izan ditu mugarririk aipagarrienak: alde batetik, EAeko Erdi Mailako Musika-kontserbatorioetako LPZk (lanpostu-zerrendak) onartzea; eta bestetik, langile horiek LPZk aurreikusitako lanpostuetara eta ekainaren 2ko 989/2000 Errege Dekretuak aurrez ikusitako Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko espezialitate berrietara atxikitze prozesua; hori guztia, jakina, martxoaren 16ko 47/2004 Dekretuak (EHAA, 2004ko martxoaren 24a), atxikitze-prozesu hori arautu duenak, xedatu duenari jarraiki.

Ikastetxe horietan zerbitzuan diharduten lan-legepeko langile finkoei dagokienez, bestalde, 2004ko maiatzaren 7ko Aginduz (EHAA, maiatzaren 19koa) ekin zitzaion langile horiek funtzionario bihurtzeko prozesuari, eta horrek EAeko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoan sartzeko bide eman zien hala nahi eta zegokien hautaketa-prozesua gainditu zutenei.

Beraz, EAeko Erdi Mailako Musika-kontserbatorioetan zerbitzuan diharduten lan-legepeko irakasle finkoei dagokienez, egin gabe dago oraindik horiek LPZk aurreikusitako lanpostuetara eta aipatu 989/2000 Errege Dekretuak aurrez ikusitako Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko espezialitate berrietara atxikitze prozesua. Ebazpen honen xedea, hain zuzen ere, horretara dator.

Azkenik, garrantzizko dirudi argitzea Ebazpen honek ez diola eragiten aipatu langileek titularitatepean dituzten lanpostuetan irauteko eskubideari, ezta antzinasunari ere. Aitzitik, atxikipen hori berrespena da, baita beste aurrerapauso bat ere, EAeko Erdi Mailako Musika-kontserbatorioetako plantillak eta ikastetxe horietan zerbitzuan diharduten behin betiko irakasleen egoera argitzeko prozesuan.

Horiek guztiak horrela, eta urriaren 16ko 222/2001 Dekretuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa onartu duenak, emandako eskubideez baliatuz, honako hau,

EBATZI DUT

Lehena.- Ebazpen honen **eranskinean** argitara ematea EAeko erdi mailako musika kontserbatorioetan zerbitzuan diharduten lan-legepeko irakasle finkoen atxikipena, bai LPZko lanpostuei dagokienez, bai Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko espezialitate berriei dagokienez.

Bigarrena.- Ebazpen honek ez dio eragiten ukitutako langileek titularitatepean dituzten lanpostuetan irauteko eskubideari, ezta antzintasunari ere.

Hirugarrena.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) bere 114. artikuluan eta ondorengoetan xedatu duenaren arabera, ebazpen honen kontra gorako errekurtsioa aurkez dakiok Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari, hilabeteko epean aurkeztu ere, jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko azaroaren 7an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Itziar GARAIZAR AGIRRE

ERANSKINA/ANEXO

CMGM JESUS GURIDI EMMK		
IZENA/NOMBRE	LANPOSTUA/ESPEZIALITATEA PLAZA/ESPECIALIDAD	H.E./ P.L.
ALONSO GASCÓN, JUAN MANUEL	TRONBOIA/TROMBÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
AYALA RODRÍGUEZ, M ^a . ANGELES	KONPOSIZIO-OINARRIAK/ FUND. DE COMPOSICIÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
AZTIRIA CARNERO, JUAN	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
BILBAO ZATARAY, MARGARITA	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
CELAYA GARCÍA, JULIA	MUSIKA-HIZKUNTZA/ LENGUAJE MUSICAL	HE1 d.g. /PL 1 s/f
CRISTOBAL LUJÁN, ADRIÁN	ESKUSOINUA/ACORDEÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
DE LA HOZ ARES, M ^a . TERESA	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
DIVAR GONZÁLEZ, FCO. JOSÉ	KLARINETEA/CLARINETE	HE1 d.g. /PL 1 s/f
ELIZONDO CASADO, VICENTE FCO.	OBOEA/OBOE	HE1 d.g. /PL 1 s/f
ESCUADERO DEL RIO, MONTSERRAT	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
FERNÁNDEZ DE RETANA ORTIZ DE ZÁRATE, SORNE	MUSIKA-HIZKUNTZA/ LENGUAJE MUSICAL	HE2/PL 2
GARCÍA FONTALBA, M ^a . ISABEL	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
GARCÍA DE LA TORRE REY, ALFONSO	KONPOSIZIO-OINARRIAK/ FUND. DE COMPOSICIÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
HERNANDO IRIBAS, M ^a . CONCEPCIÓN	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
IBÁÑEZ IRIBARRÍA, FRANCISCO	MUSIKA-HIZKUNTZA/ LENGUAJE MUSICAL	HE1 d.g. /PL 1 s/f
LAUZURICA PÉREZ, ANTONIO ESTEBAN	KONPOSIZIO-OINARRIAK/ FUND. DE COMPOSICIÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
LÓPEZ DE LUZURIAGA FERNÁNDEZ, JOSÉ I.	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
MARTÍNEZ DE LUNA MENDÍVIL, JUAN CARLOS	TRONPETA/ TROMPETA	HE1 d.g. /PL 1 s/f
MONCIERO, NICOLÁS FRANÇOIS	BIOLONTXELOA/VIOLONCELLO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
MORAZA ZÁRATE, JESÚS	TXISTUA/TXISTU	HE1 d.g. /PL 1 s/f
PARRA ADARRAGA, ANA M ^a .	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
RUIZ DE GORDOA MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ, JOSÉ	KONPOSIZIO-OINARRIAK/ FUND. DE COMPOSICIÓN	HE1 d.g. /PL 1 s/f
SARASUA GARCÍA, FCO. JAVIER	KLABEZINA/CLAVE	HE1 d.g. /PL 1 s/f
VIGURI URIARTE, M ^a . BLANCA	MUSIKA-HIZKUNTZA/ LENGUAJE MUSICAL	HE1 d.g. /PL 1 s/f
VILAGRÁN NOGUES, M ^a . ANGELA	PIANOA/PIANO	HE1 d.g. /PL 1 s/f
ZABALEGUI GORRAIZ, M ^a . TERESA	MUSIKA-HIZKUNTZA/ LENGUAJE MUSICAL	HE1 d.g. /PL 1 s/f



ERANSKINA/ANEXO

CMGM JUAN CRISOSTOMO ARRIAGA EMMK		
IZENA/NOMBRE	LANPOSTUA/ESPEZIALITATEA PLAZA/ESPECIALIDAD	H.E./P.L.
ALONSO MORAL, JESÚS	LUTHERIA/LUTHERIA	HE1 d.g./ PL 1 s/f
AMILIBIA ALARCIA, AITOR	TXISTUA/TXISTU	HE2/ PL 2
BAÑALES HERRERA, ROSA	PIANOA/PIANO	HE1 d.g./ PL 1 s/f
BRAVO GUTIERREZ-BARQUÍN, FERNANDO	BIOLINA/VIOLÍN	HE1 d.g./ PL 1 s/f
GUALLAR OTAZUA, PEDRO	PIANOA/PIANO	HE2/ PL 2
HONTORIA MÚGICA, JOSÉ ANTONIO	ESKUSOINUA/ACORDEÓN	HE1 d.g./ PL 1 s/f
LATORRE RUIZ, JOSÉ ANTONIO	PIANOA/PIANO	HE1 d.g./ PL 1 s/f

CMGM FRANCISCO ESCUDERO EMMK		
IZENA/NOMBRE	LANPOSTUA/ESPEZIALITATEA PLAZA/ESPECIALIDAD	H.E./P.L.
AGUINAGA RAMOS, PEDRO MIGUEL	BIOLINA/VIOLÍN	HE2/PL 2
ELIZALDE CHASCO, M ^a . ELISABETH	SAXOFOIA/SAXOFÓN	HE2/PL 2
LIZASO LOIDI, JON KARLA	TRONPA/TROMPA	HE2/PL 2